Familia maizterren % 61 Bizkaian bizi dira, % 23 Gipuzkoan eta % 17 Araban. Bizkaiko eta Arabako betetze-mailak (% 95 eta % 94, hurrenez hurren), Gipuzkoakoa gainditzen du (% 91), gutxigatik bada ere.

2.5. taula Bizigune Programako alokairu-kontratuak, 2011

	Kop.	bertikalaren %	Betetzearen %
Lurralde historikoa			
Araba	746	16,6	94,3
Bizkaia	2.737	60,7	94,8
Gipuzkoa	1.023	22,7	90,9
Guztira	4.506	100,0	93,8
Hiriburuak			
Bilbo	833	18,5	94,3
Donostia	107	2,4	94,7
Gasteiz	615	13,6	94,9
Guztira	1.555	34,5	94,6
Udalerrri handiak > 40.000 biztanle			
Barakaldo	348	7,7	95,6
Basauri	133	3,0	94,3
Getxo	91	2,0	96,8
Irun	70	1,6	86,4
Portugalete	102	2,3	99,0
Santurtzi	134	3,0	95,0
Guztira	878	19,5	95,0

Iturria: ALOKABIDE. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritzak.

Lehen alokairu-kontratua amaitzean, hau da, bost urte igarotzean, jabeen % 88k etxebizitza Programaren bitartez alokatzen jarraitzea erabaki zuten eta % 12k bakarrik erabaki zuten kontrakoa. Emaitza hori aurreko urteetan ezagututakoen antzekoa da.

2.6. taula Alokairuko kontratuen mugaeguna eta berritzeak, 2008-2011

Urtea	Mugaeguneratuak	Jabeak berritu ez dituen kontratuak	Jabeak berritu ez dituenen %	Jabeak berritu dituenen %
2008	278	34	12,2	87,8
2009	689	82	11,9	88,1
2010	868	92	10,6	89,4
2011	809	99	12,2	87,8

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritzak.

Bestalde, Biziguneren parkearen urteko txandakatze-portzentajea % 13koa izan da 2011n, eta emaitza hori 2006-2011 aldiaren lotu zenaren (% 13) parean geratu da.

Kontratu baten iraupen osoa kontuan hartuta (bost urte), % 67koa da batez besteko txandakatzea kontratuak irauten duen bitartean, eta hori kontuan hartuta ondoriozta daiteke, Bizigune Programako etxebizitza bakoitzean etxebizitzaren eskatzaile diren 1,6 familia bizi izan direla 5 urteko aldi batean.

2.7. taula Bizigune parkearen urteko txandakatzearen bilakaera, 2006-2011

	Etxebizitza alokatuaren batez besteko parkea	Deuseztapen kop.	urteko txandakatzearen %
2006	2.071	312	15,1
2007	2.863	304	10,6
2008	3.595	507	14,1
2009	4.123	524	12,7
2010	4.321	635	14,6
2011	4.450	577	12,9

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

2.4.2. Alokairuko errentak

Bizigune Programako etxebizitzaren alokairu-errentei erreparatuz, 2011 ixtean lortutako datuek erakusten dute hileko 303 euroko batez besteko errenta ordaindu dutela biztanle maizterrek; bien bitartean, jabeek 597,5 euroko batez besteko diru-kantitatea jaso dute hilean. Bi kopuru horien arteko aldea, hileko 295 euro, hain zuzen ere, bere gain hartzen du Etxebizitza Sailak, diru-laguntza moduan.


2.8. taula Biziguneko familia maizterrek ordaindutako errentaren banaketa, 2011

bertikalaren %	Jabeen errenta	Maizterren errenta
200 euro bitartean	0,1	21,4
201-300 euro	0,1	34,7
301-400 euro	0,3	22,1
401-500 euro	5,1	14,3
501-600 euro	49,7	4,1
601-700 euro	39,1	2,8
700 euro baino gehiago	5,7	0,5
Batez besteko errenta (eurotan)	597,5	302,9

Iturria: ALOKABIDE. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Maiztasunen banaketari erreparatzen bazaio ikus daiteke, jabeek ordaindutako errenten % 5 501-600 euro arteko tartean sartzen direla eta % 45, berriz, 600 eurotik gorako errentak direla. Familia maizterren kasuan, % 35ek dute 201-300 euro arteko errenta bat eta % 31k hileko 200 eurotik beherako errenta bat dute. 301-400 euro arteko tartean daude biztanle maizterren % 22 eta beste % 22 batek 400 eurotik gorako errenta bat ordaintzen dute.


2.11. grafikoa Bizigune Programako etxebizitzak alokatzeko errentaren banaketa metatua, 2011



Iturria: ALOKABIDE. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.


Bilakaerari erreparatzen badiogu, azken urtean jabeek jasotako batez besteko errentak ezagutu duen hazkundera (+% 3) azpimarratu behar da. Halaber, maizterren batez besteko errentak aldaketa handirik ezagutu ez duela azpimarratu behar da (-% 0,6).

2.12. grafikoa Bizigune Programaren bitartez alokatutako etxebizitzaren batez besteko errentaren bilakaera, 2003-2011




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Merkatu libreko alokairuaren batez besteko errentarekin alderatzean, jabeek jasotako errenta merkatukoa baino 299 euro gutxiagokoa dela azpimarratu behar da eta maizterrek merkatu librean ordaindutakoa baino 593 euro gutxiago ordaindu dituztela. Kontrako ikuspegitik esan daiteke, halaber, alokairu librearen errenta jabeek programa honen bitartez jasotzen dutena baino 1,5 aldiz altuagoa dela eta 3 aldiz gainditzen duela Biziguneko biztanle esleipendunek ordaindutako errenta.




2.13. grafikoa Merkatu librean eta Bizigune Programan alokatutako etxebizitzaren batez besteko errenta



Iturria: ALOKABIDE. Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta, 2011. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.


Programaren errentek esparru geografikoka lortutako emaitzek ez dute desberdintasun handirik islatzen. Jabeen batez besteko errentarik altuena Arabakoa da (612 euro), eta bertan erregistratu da kopururik baxuena, halaber, maizterrek ordaindutako errentari dagokionez (290 euro). Gipuzkoan, aitzitik, jabeen errenta (583 euro) zerbait baxuagoa da eta altuagoa da (312 euro), berriz, maizterrena. Bizkaiko jabeek jasotzen duten errenta 599 eurokoa da batez beste eta maizterrek 303 euroko batez besteko alokairua ordaintzen dute.

2.14. grafikoa Bizigune Programako etxebizitzaren batez besteko errenta lurralde historikoa



Iturria: ALOKABIDE. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Eta udalerrri handiei helduta, datuek erakusten dute jabeen ordaindutako errenta zerbait altuagoa dela Getxon (633 euro) eta Donostian (630 euro). Eta maizterrei dagokienez, aipatutako bi udalerrietan altuagoak dira, halaber, alokairuaren batez besteko errentak: 359 euro Donostian eta 357 euro Getxon.



2.9. taula Bizigune Programaren barruan alokatutako etxebizitzaren batez besteko errenta esparru geografikoa, 2011

	Jabeen errenta	Maizterren errenta	maizterren errentaren % jabeen errentarekiko
Lurralde historikoa			
Araba	612,4	289,6	47,3
Bizkaia	599,0	303,2	50,6
Gipuzkoa	583,1	311,7	53,5
Guztira	597,5	302,9	50,7
Hiriburuak			
Bilbo	608,2	308,2	50,7
Donostia	630,2	358,7	56,9
Gasteiz	621,3	294,6	47,4
Udalerrri handiak > 40.000 biztanle			
Barakaldo	602,2	296,3	49,2
Basauri	587,8	292,7	49,8
Getxo	633,1	357,4	56,5
Irun	595,6	305,7	51,3
Portugalete	582,6	314,0	53,9
Santurtzi	605,7	308,8	51,0

Iturria: ALOKABIDE. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

2.4.3. Merkaturatutako etxebizitzaren tamaina

Etxebizitzaren kokapenari eta alokairu-errentei buruz hitz egin ondoren, Bizigune programaren parkeko etxebizitzaren tamainari buruzko datuak aurkezten dira atal honetan.


Antzemandako etxebizitzaren % 36k 61-75 m² arteko tamaina dute. % 25ek 61 m² baino gutxiago dute eta gainerako % 39 75 m² baino gehiago dituzten etxebizitzak dira.

Bizigune bitartez alokatutako etxebizitzaren batez besteko tamaina 72 m²-koa da, Etxebiden izena emandako biztanle eskatzaileek aurreikusitako tamaina (64 m²) baino zerbait handiagoa, baina gaur egun merkaturatutako eskaintzen diren alokairuko etxebizitzak (82 m²) baino txikiagoa.


2.10. taula Bizigune etxebizitzaren azalera arabera, 2011 Programako banaketa erabilgarriaren

	bertikalaren %
< 40 m ²	1,1
41-60 m ²	24,4
61-75 m ²	35,6
76-90 m ²	27,8
91-120 m ²	10,8
120 m ² baino gehiago	0,1
Guztira	100,0
Batez besteko azalera (m²)	72,4

Iturria: ALOKABIDE. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.



2.15. grafikoa Alokairu libreko etxebizitzaren, Biziguneko etxebizitzaren eta Etxebiden izena emandako eskatzaileek behar dituzten etxebizitzaren batez besteko azalera erabilgarria



Iturria: ALOKABIDE. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebiden izena emandako biztanleen inkesta, 2011.


Taulan adierazi da, halaber, hiriburuetan eta udalerrri handietan kokatutako Biziguneko etxebizitzaren batez besteko tamaina.

Donostian alokatutako etxebizitzak (65 m²) txikiagoak dira, Gasteizkoekin alderatuta (74 m²).

2.11. taula Bizigune Programako etxebizitzaren batez besteko tamaina, 2011

	Batez besteko azalera erabilgarria (m ²)
Lurralde historikoa	
Araba	74,6
Bizkaia	72,5
Gipuzkoa	70,8
Guztira	72,4
Hiriburuak	
Bilbo	70,1
Donostia	65,4
Gasteiz	73,9
Udalerrri handiak > 40.000 biztanle	
Barakaldo	70,0
Basauri	71,1
Getxo	73,5
Irun	68,5
Portugalete	68,2
Santurtzi	71,1


Iturria: ALOKABIDE. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.



2.5. Eskariaren estaldurari buruzko adierazleak

Etxebiden erregistratutako Bizigune Programako guztizko eskaria eta indarrean dauden alokairu-kontratuak kontuan hartuta, 2011 amaieran Biziguneren parkearen bitartez erantzundako eskaria % 12ra iritsi da, eta emaitza hori egonkor mantendu da aurreko urteetan lortutakoarekin alderatuz (% 12 2009an eta 2010ean).

2.16. grafikoa Bizigune Programako etxebizitza-eskariaren estaldura-indizea, 2011




* Estaldura-indizea = alokatutako etxebizitzaren % Biziguneren izena emandako eskariaren guztizkoarekiko.


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Estaldura-ratio horri jarraituz, esparru geografikoka Araban altuagoa izan da estaldura-maila, bertan sinatutako 746 kontratuekin lurraldeko guztizko eskariaren % 15i erantzun baitzaio. Bestalde, % 13koa da Bizkaian lortutako ratioa (2.737 kontratu) eta % 9koa da Gipuzkoan lortutakoa (1.023 kontratu).

2.17. grafikoa Biziguneren bitartez erantzundako etxebizitza-eskariaren estaldura-indizea lurralde historikoka, 2011



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.



Udalerriei erreparatuz, alde nabarmenak ikus daitezke estalitako eskariari erreparatzen bazaio. 2011n Gasteizko eskariaren % 15 erantzun da eta % 10ekoa izan da portzentajea Bilbon. Haatik, hiriburu gipuzkoarrean eskariaren % 2 soilik erantzun da.

2.12. taula Bizigune Programako eskariaren estaldura-indizea esparru geografikoka, 2011

	Eskariaren estaldura-indizea
Lurralde historikoa	
Araba	15,1
Bizkaia	13,1
Gipuzkoa	9,0
Guztira	12,1
Hiriburuak	
Bilbo	9,7
Donostia	2,4
Gasteiz	14,6
Guztira	9,0
Udalerrri handiak > 40.000 biztanle	
Barakaldo	20,9
Basauri	18,6
Getxo	6,1
Irun	10,2
Portugalete	14,1
Santurtzi	16,5
Guztira	14,4

* Estaldura-indizea = alokatutako etxebizitzaren % Bizigunen erroldatutako eskariaren guztizkoarekiko.


Iturria: ALOKABIDE. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Eta udalerrri handiak kontuan hartuta, Barakaldon eta Basaurin lortutako portzentajeak azpimarratu behar dira (% 21 eta % 19, hurrenez hurren).

2.6. Programaren kostuaren adierazleak

2.6.1. Programaren kostu orokorra etxebizitza bakoitzagatik

2011n Sailak Bizigune Programari emandako guztizko diru-laguntza 23 milioi eurora iritsi da. Bizigune programak alokairu libreko merkatuko 4.802 etxebizitza eskaintzea lortu duela kontuan hartuta, Sailak antzemandako etxebizitza bakoitzagatik emandako batez besteko diru-laguntza 4.821 eurora iritsi da.



2.13. taula Antzemandako etxebizitza bakoitzagatik Etxebizitza Sailak Bizigune Programari emandako batez besteko diru-laguntzaren zenbatespena


	Antzemandako etxebizitzak	Sailaren diru-laguntza (milioi eurotan)	Sailaren batez besteko diru-laguntza etxebizitza bakoitzagatik (eurotan)
2003	531	2,0	3.766,5
2004	1.132	4,5	3.975,3
2005	1.908	8,0	4.192,9
2006	2.605	10,0	3.838,8
2007	3.446	14,38	4.173,0
2008	4.215	21,59	5.122,2
2009	4.557	21,19	4.650,0
2010	4.741	22,29	4.701,5
2011	4.802	23,15	4.820,9

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

2.6.2. Alokairuaren errenten kostu ekonomikoa


Lehenago aipatutakoa gogora ekarriz, Biziguneko etxebizitzaren jabeek alokairuagatik jasotako zenbatekoa hileko 597,5 eurokoa da; maizterrek, berriz, 303 euroko errenta bat ordaindu dute batez beste. Sailak bere gain hartzen du diru-laguntzarengatik alde eta 2011 ixtean hileko 295 eurokoa da alde hori, beraz, urtean 3.535 euroko kopurua ordaintzen du etxebizitza bakoitzagatik.

2.18. grafikoa Bizigune Programaren alokairurako hileko batez besteko diru-laguntzaren bilakaera, 2003-2011



Iturria: ALOKABIDE. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Erreferentzia gisa programari esleitutako etxebizitza bakoitzaren batez besteko kostua hartzen badugu (4.821), alokairu-errentaren urteko diru-laguntza (3.535 euro) kostu horren % 73ra iritsi dela ikus daiteke, eta emaitza hori aurreko urtean lortutakoa baino zerbait altuagoa da.



2.14. taula Alokairurako diru-laguntzaren garrantzia Bizigune Programaren guztizko kostuarekiko.

	Batez besteko guztizko kostua Programako etxebizitza bakoitzagatik (eurotan)	Alokairurako urteko batez besteko diru-laguntza etxebizitza bakoitzagatik (eurotan)	Alokairurako diru-laguntzaren % guztizko kostuarekiko
2003	3.766,5	3.703,2	98,3
2004	3.975,3	3.643,2	91,6
2005	4.192,9	3.903,6	93,1
2006	3.838,8	3.385,2	88,2
2007	4.173,0	3.435,6	82,3
2008	5.122,2	3.480,0	67,9
2009	4.650,0	3.442,8	74,0
2010	4.701,5	3.307,7	70,4
2011	4.820,9	3.535,1	73,3

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritzak.


2011 amaieran indarrean zeuden 4.506 kontratuek alokairurako jasotako diru-laguntza urteko 16 milioi euro inguruko gastua eragin dute, eta portzentaje horretatik % 35 euskal hiriburuetan egindako gastua da eta % 19 udalerrri handietan egindakoa.

2.15. taula Bizigune Programaren urteko alokairu-errentarako diru-laguntzaren zenbatespena esparru geografikokoa, 2011

	Urteko batez besteko diru-laguntza	Urteko diru-laguntzaren guztizko bolumena	bertikalaren %
Lurralde historikoa			
Araba	3.873,6	2.889.705,6	18,1
Bizkaia	3.549,6	9.714.598,8	61,0
Gipuzkoa	3.256,8	3.331.584,0	20,9
Guztira	3.535,1	15.929.070,0	100,0
Hiriburuak			
Bilbo	3.600,0	2.998.800,0	18,8
Donostia	3.258,0	348.606,0	2,2
Gasteiz	3.920,4	2.411.046,0	15,1
Guztira	3.592,8	5.586.804,0	35,1
Udalerrri handiak > 40.000 biztanle			
Barakaldo	3.670,8	1.277.438,4	8,0
Basauri	3.541,2	470.979,6	3,0
Getxo	3.308,4	301.064,4	1,9
Irun	3.478,8	243.516,0	1,5
Portugalete	3.223,2	328.766,4	2,1
Santurtzi	3.562,8	477.415,2	3,0
Guztira	3.464,4	3.041.568,0	19,1

* 2011ko abenduaren 31n indarrean dauden alokairu-kontratuen kopuruaren arabera kalkulatu da.

Iturria: ALOKABIDE. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.



3. BIZIGUNE PROGRAMAKO PERTSONA ESLEIPENDUNEI EGINDAKO INKESTA ESPEZIFIKOA

Hirugarren kapitulu honetan, 2012an Bizigune Programako biztanle maizterren artean egindako Inkestaren emaitzak deskribatzen dira. Lehenik eta behin, familia maizterren ezaugarri soziodemografikoak aztertzen dira eta esleitutako etxebizitzaren ezaugarriak deskribatzen dira. Ondorengo atalean ikus daiteke Biziguneko taldeak EAEn garatzen den etxebizitza-politikari buruz egindako balorazioa. Eta kapituluarekin amaitzeko, emaitzak generoaren ikuspegitik aztertu dira.

3.1. Inkestan parte hartu duten pertsonen eta esleitutako etxebizitzaren karakterizazioaren adierazleak


Bizigune Programako etxebizitzaren familia maizterretatik informazioa eman duten pertsonen ezaugarri demografikoei helduta, lehenik eta behin azpimarratu behar da inkesten % 55 emakumezkoek erantzun dituztela eta % 45, berriz, gizonezkoek. Kasu guztietan emakumezkoen parte-hartzeak gizonezkoena gainditu du.

Adin-taldeen arabera, inkestan parte hartu duten pertsonen % 40k 35-44 urte bitartean dituzte, % 21ek 35 urte baino gutxiago dituzte eta % 39k 44 urtetik gora.

3.1. taula Biztanleria maizter informazio-emaitzaren ezaugarri soziodemografikoak


bertikalaren %	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
Sexua			
Emakumezkoa	55,8	52,0	54,7
Gizonezkoak	44,2	48,0	45,3
Adina			
30 urte baino gutxiago	6,1	3,7	5,4
30-34 urte	13,7	19,6	15,4
35-44 urte	39,5	41,5	40,1
45-64 urte	35,9	30,1	34,2
65 urte eta gehiago	4,8	5,1	4,9
Batez besteko adina (urteak)	43,6	43,3	43,5

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.



Aurreko urteetako txostenekin alderatuz ondoriozta daiteke Biziguneko etxebizitzaren titularren batez besteko adina gero eta altuagoa dela, eta horren erakusle da ondoren ikus daitekeen grafikoa.

3.1. grafikoa Bizigune Programako biztanle maizterren batez besteko adinaren bilakaera, 2010-2012




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Kide bakarrek familiak (% 51) eta pertsona ezkongabeak (% 49) dira gehiengoa, hain zuzen ere, Bizigune parkearen familia maizterren erdia. Hala ere, familiaren batez besteko tamaina handitu egin da (2,1 kide familiako gaur egun eta 1,9 2011n) eta gehiago dira beren kontura semeak/alabak dituzten familia gurasobakarrak (% 21 gaur egun eta % 11 2011n).

3.2. taula Bizigune Programako biztanle maizterren tipologia


bertikalaren %	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
Egoera zibila			
Ez kongabea	50,3	44,7	48,7
Ez kondua	26,5	25,7	26,3
Izatezko bikotea	2,0	1,7	1,9
Banandua-Dibortziatua	17,4	21,6	18,6
Alarguna	3,9	6,3	4,6
Familia unitatearen tamaina			
Pertsona bakarra	51,1	50,6	50,9
Bi pertsona	21,0	19,3	20,5
Hiru pertsona	10,8	14,5	11,9
Lau pertsona	9,0	9,4	9,1
Bost pertsona edo gehiago	8,1	6,1	7,6
Batez besteko tamaina	2,07	2,04	2,06
Familia-tipologia			
Pertsona bakarra	50,3	50,6	50,9
Bikotea seme-alabarik gabe	6,9	7,9	7,2
Bikotea eta seme-alabak	11,6	13,3	12,1
Bikotea eta seme-alabak, eta beste hainbat	4,9	1,9	4,0
Bere kontura seme/alaba adin txikiak dituen familia gurasobakarra	21,2	20,6	21,0
Seme/alaba adin nagusiak dituen familia gurasobakarra	4,9	3,9	4,6
Beste egoera bat	0,3	1,8	0,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.



Langabeziak gora egin du nabarmenki Bizigune Programako biztanle maizterren artean. Familia horiek emandako informazioaren arabera, langabezian daude inkestan parte hartu dutenen % 42, eta portzentaje hori % 31koa zen 2011n eta % 27,5koa 2010ean. Biziguneko famili horien artean erregistratutako langabeziak gairitu egiten du alokairuko etxebizitza babestu baten biztanle esleipendunen artean erregistratutakoa (% 28)⁵.

3.2. grafikoa Biziguneko biztanle maizter langabetuen bilakaera, 2010-2012



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

3.3. taula Bizigune Programako biztanle maizterren lan-egoera eta sarrera-maila

bertikalaren %	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
Lan-egoera			
Lanean/bere kontura	5,6	1,6	4,4
Lanean/kontratu finkoa	17,1	27,1	20,0
Lanean/aldi baterako kontratua	16,5	23,1	18,4
Langabezian	45,5	33,2	41,8
Erretiratua edo pentsioduna	12,6	13,8	13,0
Beste hainbat	2,7	1,3	2,4
Sarrera-mailak			
480 € bitartean*	8,4	9,4	8,6
481-570 euro	2,3	4,4	2,9
571-630 euro	11,2	10,5	11,0
631-720 euro	10,3	12,3	10,9
721-840 euro	9,7	16,2	11,6
841-990 euro	19,9	13,3	18,0
991-1.140 euro	11,2	14,8	12,3
1.141-1.290 euro	9,0	5,4	7,9
1.291-1.410 euro	3,0	4,5	3,5
1.411-1.650 euro	3,6	5,3	4,1
1.651-2.160 euro	3,1	1,3	2,6
2.161- 2.670 euro	0,7	0,0	0,5
Ed/Ee	7,6	2,6	6,2
Hileko batez besteko diru-sarrerak (eurotan)	900,4	867,17	890,49
Diru-sarrera bakar bat duten familien %	85,4	91,1	87,1

* Tarte honetan sartu dira diru-sarrerarik ez dutela adierazi duten pertsonak.


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Ikus etxebizitza babestuaren biztanle esleipendunen 2012ko inkesta.

Lan-egoerak ezagutu duen txartzearekin bat etorritz, behera egin du Biziguneko familia maizterrek aitortutako batez besteko diru-sarrerren mailak. Hileko 890,5 eurokoa da batez bestekoa eta Arabako familiak dira diru-sarrera baxuena dutenak (853 euro).


2012ko diru-sarrerren maila 2011n eta 2010ean erregistratutakoa baino zerbait baxuagoa da.

3.3. grafikoa Bizigune Programako biztanle maizterren batez besteko diru-sarrerren bilakaera, 2010-2012



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

3.4. grafikoa Bizigune Programako familia maizterren batez besteko diru-sarrerak antzinasunaren eta lurralde historikoaren arabera




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Familia maizterrek etxebizitzetzi buruzko informazio osagarria ematen dute, halaber. % 50ek aitortu dute hiru logelako etxebizitza bat dutela eta % 38k esan dute bi logelakoa dutela.

3.4. taula Bizigune Programako etxebizitzen logela kopurua

bertikalaren %	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
1 logela	7,5	8,5	7,8
2 logela	41,0	31,4	38,2
3 logela	47,5	54,7	49,6
3 logela baino gehiago	3,9	5,4	4,4
Guztira	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.



Biziguneren etxebizitzen guztizkotik % 64k igogailua dute eta % 21ek trastelekua. Kopuru erlatiboetan ez da desberdintasun esanguratsurik ikusten.

3.5. taula Bizigune Programako etxebizitzetzi lotutako eratxikiak eta ekipamendua

baiezkoen %	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
Igogailua	64,7	63,8	64,4
Trastelekua	20,4	22,7	21,1
Garajea	1,0	1,0	1,0

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

3.2. Erantzundako etxebizitza-beharrak, gaur egungo beharra eta etorkizuneko

3.2.1. Erantzundako etxebizitza-behar mota

Inkestako emaitzen arabera baieztatu daiteke kasuen % 82an Biziguneko etxebizitzari esker lortu dela ohiko bizilekua aldatzea. Gainerako % 18k esan dute Biziguneri esker lortu dutela beren lehen etxebizitza eskuratzea.

3.6. taula Bizigune Programaren bitartez erantzundako beharra antzinatasunaren eta lurralde historikoaren arabera

bertikalaren %	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Lehen etxebizitza eskuratzea	19,0	16,7	9,9	13,3	37,5	18,4
Ohiko etxebizitza aldatzea	81,0	83,3	90,2	86,7	62,5	81,6
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Biziguneko etxebizitza bat eskuratu aurretik familia independente bat osatzen zuten familiei erreparatu, % 62 merkatu libreko alokairuko etxebizitza batean bizi zirela eta % 24 etxebizitza partekatu batean bizi zirela azpimarratu behar da.


3.7. taula Bizigune Programara aldatu diren familien bizitegi-egoera

	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
Biziguneko alokairuko beste etxebizitza batean	13,7	7,9	12,0
Merkatu libreko alokairuko beste etxebizitza batean	63,2	57,9	61,6
Etxebizitza partekatu batean	21,8	29,2	24,0
Utzitako etxebizitza batean	0,7	1,9	1,1
Beste egoera bat	0,6	3,1	1,4
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Inkestan parte hartu duten jabeek emandako informazioaren arabera, gaur egun Biziguneko etxebizitza batengatik ordaintzen den alokairu-errenta merkatu librean ordaintzen zena baino % 42 baxuagoa da (514,5 euro batez beste etxebizitza bakoitzagatik merkatu librean).

3.5. grafikoa Bizigune Programara aldatu diren biztanle maizterren aurreko batez besteko errenta vs. gaur egungo batez besteko errenta antzintasunaren eta lurralde historikoaren arabera




* Inkestan parte hartu duten familia maizterrek aitortutako alokairuaren errenta da.
Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

3.2.2. Gaur egungo etxebizitzaren beharra

a) Ohiko etxebizitza aldatzeko beharra


Etorkizunera begirada bat egiten bada, 2012an Biziguneko familia maizterren % 24k adierazi dute ohiko etxebizitza aldatzeko beharra dutela, eta proportzio hori zerbait baxuagoa zen duela urtebete (% 29k zuten etxebizitza aldatzeko beharra 2011n).

3.6. grafikoa Bizigune Programako biztanle maizterren ohiko etxebizitza aldatzeko beharra antzintasunaren eta lurralde historikoaren arabera



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Inkestak erakusten duenez, familien % 10ek aitortu dute Bizigune Programako beste etxebizitza baten bila ari direla eta % 9k adierazi dute beharra edukita ere ez direla beste etxebizitza bat bilatzen hasi.



3.8. taula Bizigune Programako biztanle maizterren etxebizitza aldatzeko beharra

	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
Ez dut etxebizitza aldatzeko beharrik	69,1	76,6	71,3
Bai, beharra dut baina ez naiz bilatzen hasi	10,3	6,8	9,3
Bai, beste etxebizitza baten bila ari naiz Bizigune Programarekin	10,8	10,2	10,6
Bai, alokairuko beste etxebizitza babestu baten bila ari naiz	1,8	1,4	1,7
Bai, erosketa-erregimeneko beste etxebizitza babestu baten bila ari naiz	1,1	1,2	1,1
Bai, beste etxebizitza baten bila ari naiz merkatu librean	1,4	1,8	1,5
Bai, erosteko etxebizitza baten bila ari naiz	0,8	0,0	0,6
Beste egoera bat	0,3	0,3	0,3
Ed/Ee	4,4	1,7	3,6

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.


Beste etxebizitza baten bila ez egoteko arrazoiak lotura handia du familia horiek merkatu libreko etxebizitza bat eskuratzeko dituzten aukera eskasekin. Familien % 70ek uste dute ez dutela aukerarik merkatu libreko alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko, eta proportzio hori % 92ra iristen da etxebizitza libre bat erosteko aukerarik ez dutela adierazi duten familiak kontuan hartuta.

3.9. taula Bizigune Programako familia maizterrek merkatu libreko etxebizitza bat eskuratzeko dituzten aukerak


bertikalaren %	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
Merkatu librean alokatzeko aukera			
Aukera handiak	0,0	0,0	0,0
Aukera dezente	3,8	3,0	3,6
Tarteko iritzia	5,1	6,3	5,5
Aukera gutxi	20,9	21,3	21,0
Aukerarik ez	70,2	69,4	69,9
Batez besteko aukerak (0-100 indizea)	10,7	10,7	10,7
Merkatu librean erosteko aukera			
Aukera handiak	0,0	0,0	0,0
Aukera dezente	0,0	0,0	0,0
Tarteko iritzia	1,6	1,5	1,6
Aukera gutxi	5,9	6,6	6,1
Aukerarik ez	92,5	91,9	92,3
Batez besteko aukerak (0-100 indizea)	2,3	2,4	2,3

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Gero eta aukera gutxiago daude, batez beste, merkatu librean alokatzeko (10,7 puntuko batez bestekoa 100 punturekiko) edo merkatu librean erosteko (2,3 puntu) eta behera egin dute bi batez bestekoek, 2011ko inkestarekin alderatuz (11,7 eta 3,6 puntu, hurrenez hurren).



3.7. grafikoa Bizigune Programako familia maizterrek merkatu libreko etxebizitza bat eskuratzeko dituzten aukerak antzintasunaren eta lurralde historikoaren arabera



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.


b) Etxebizitza birgaitzeko beharra

Inkestaren bitartez Biziguneren etxebizitza-parkearen kontserbazio-egoera eta mantentze-egoera ezagutu daiteke. Zentzu horretan, familia maizterren erdiak baieztatu dute beren etxebizitza birgaitu egin zutela beraiek bertara bizitzera joan aurretik. Eta, gaur egun, familien % 34k adierazi dute etxebizitza birgaitzeko beharra.


3.10. taula Bizigune Programako biztanle maizterren etxebizitza birgaitzeko beharra

bertikalaren %	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
Etxebizitza birgaitu al da?			
Bai	50,1	48,5	49,7
Ez	37,7	37,6	37,6
Ed/Ee	12,2	13,9	12,7
Etxebizitzak birgaitzeko beharrik al du?			
Bai	35,4	31,2	34,2
Ez	64,6	68,8	65,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.




3.8. grafikoa Bizigune Programako biztanle maizterren etxebizitza birgaitzeko beharra antzintatasunaren eta lurralde historikoaren arabera



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Komuna edo sukaldea aldatzeko beharra da gehien aipatzen den birgaitze mota (% 14). Garrantziaren arabera, ondoren dago leihoak eta atea aldatzeko beharra (% 13). Gainerako erreformen kasuan, % 5eko portzentajea lortu da.

3.9. grafikoa Bizigune Programako familia maizterrek etxebizitzetan beharrezkoak dituzten birgaitze motak



* baiezkoen % inkestan parte hartu duten familien guztizkoarekiko.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

3.2.3. Beharrari erantzuteko aukerak

Programara sartu aurreko egoera eta gaur egungo etxebizitza-beharra aztertu eta gero, biztanle maizterrei eskatzen zaie etorkizun hurbilean beren beharrari erantzuteko dituzten aukerei buruz hausnartzeko. Horrela, 2012an familien % 63k adierazi dute 5 urteren buruan Bizigune bitartez alokairuan jarraitzeko asmoa dutela, eta proportzio hori 2011ko inkestan lortutakoa (% 58) baino altuagoa da.


Halaber, ugaritu egin dira 5 urteren buruan non biziko diren ez dakiten kasuak eta familien % 28,5 daude egoera horretan.

3.11. taula Bizigune Programako familia maizterrek bost urteren buruan etxebizitza-beharrari erantzuteko dituzten aukerak

bertikalaren %	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
Alokairuan jarraituko dut Bizigune Programarekin	61,0	67,0	62,7
Alokairuko etxebizitza babestu bat eskuratuko dut	3,6	5,5	4,2
Etxebizitza babestu bat eskuratuko dut erosketa-erregimenean	2,6	0,7	2,1
Etxebizitza bat alokatuko dut merkatu librean	1,5	1,5	1,5
Etxebizitza bat erosiko dut merkatu librean	0,8	1,7	1,1
Ed/Ee	30,5	23,5	28,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

3.10. grafikoa Bizigune Programan iraungo duten denbora Bizigune Programako familia maizterren artean antzinatasunaren eta lurralde historikoaren arabera



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

3.3. Esleitutako etxebizitzarekiko asetasunaren adierazleak

3.3.1. Etxebizitzarekiko asetasun orokorra

Bizigune Programako etxebizitzaren familia esleipendunek asetasun-maila oso altua erakutsi dute bizi diren etxebizitzarekiko. Zehazkiago, % 84k aitortu dute oso edo nahiko asetuta daudela; % 14,5 dira, aitzitik, asetuta ez daudenak.


Batez besteko asetasun-maila 73 puntukoa da (0-100 indizea), eta batez bestekoa zerbait altuagoa da Arabako biztanle maizterren artean (76,5 puntu).

3.12. taula Bizigune Programako familia maizterren egungo etxebizitzarekiko asetasun orokorra


bertikalaren %	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
Oso pozik	36,7	34,0	35,9
Nahiko pozik	46,9	52,1	48,4
Ez oso pozik	13,3	10,1	12,4
Poztasunik bat ere ez	2,5	1,0	2,1
Ed/Ee	0,6	2,8	1,2
Batez besteko puntuazioa (0-100 indizea)	72,8	74,2	73,2

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

3.11. grafikoa Bizigune programako familia maizterren egungo etxebizitzarekiko batez besteko asetasun orokorra antzinatasunaren eta lurralde historikoaren arabera



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.




Bilakaerari erreparatzen bazaio, datuek erakusten dute Programako biztanle maizterrak gero eta asetuago daudela esleitutako etxebizitzarekin.

3.3.2. Alokairu-erregimen arekin duten assetasuna

Biziguneko etxebizitzaren biztanle esleipendunek oso asetuta jarraitzen dute esleitutako etxebizitza alokairukoa izatearekin. % 59 nahiko asetuta daude eta % 33 oso asetuta.

3.12. grafikoa Bizigune Programako familia maizterren egungo etxebizitzarekiko batez besteko assetasun orokorraren bilakaera, 2010-2012




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta, 2010-2012.

3.13. taula Etxebizitza alokairuan esleitzearekin Bizigune Programako familia maizterrek agertutako assetasuna


bertikalaren %	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
Oso pozik	33,7	32,5	33,4
Nahiko pozik	57,1	62,9	58,8
Ez oso pozik	4,9	3,8	4,5
Poztasunik bat ere ez	2,1	0,0	1,5
Ed/Ee	2,2	0,9	1,8
Batez besteko indizea (0-100)	75,1	76,3	75,4

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

3.13. grafikoa Etxebizitza alokairuan esleitzearekin Bizigune Programako familia maizterrek agertutako batez besteko assetasun-maila orokorra antzintasunaren eta lurralde historikoaren arabera




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.



2012an alokairuko etxebizitzaren esleipenarekiko agertutako batez besteko assetasuna 75 puntura iritsi da eta batez besteko horrek gainditu egin ditu 2011koa (71 puntu) eta 2010ekoa (70 puntu).

3.14. grafikoa Bizigune Programako familia maizterrek egungo etxebizitza alokairukoa izatearekin duten batez besteko assetasun orokorraren bilakaera, 2010-2012




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2010-2012.

Alokairugatik ordaindutako kopuruak ere emaitza onak lortu ditu, 65 puntuko assetasun-maila batekin. Ordaindutako alokairu-errentarekiko batez besteko assetasuna oso antzekoa da aztertutako multzo guztietan.


3.14. taula Bizigune Programako familia maizterren alokairu-errentarekiko assetasun orokorra

bertikalaren %	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
Oso pozik	27,3	23,4	26,2
Nahiko pozik	46,9	48,0	47,3
Ez oso pozik	19,2	21,4	19,8
Poztasunik bat ere ez	6,0	4,0	5,4
Ed/Ee	0,6	3,2	1,4
Batez besteko indizea (0-100)	65,4	64,6	65,2

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.




3.15. grafikoa Bizigune programako familia maizterren egungo alokairu-errentarekiko batez besteko assetasuna antzintatasunaren eta lurralde historikoaren arabera



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.


Ordaindutako errentarekiko gaur egungo assetasun-maila (65 puntu batez beste), duela urte bat lortutakoa baino altuagoa da (53 puntukoa zen duela urtebete).

3.16. grafikoa Bizigune Programako familia maizterrek gaur egun ordaintzen duten alokairu-errentarekiko batez besteko assetasun orokorraren bilakaera, 2010-2012



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2010-2012.

Prezioaren aldagaiari dagokionez, biztanle maizterrei galdetu zaien esleitu zaien Biziguneko etxebizitzaren kalitatea/prezioa erlazioari buruz. Kasuen erdiak baino gehiagok adierazi dute erlazio hori "nahiko ona" dela eta % 27k "oso ona" dela esan dute.




3.15. taula Esleitutako etxebizitzaren kalitatea/prezioa balorazioa Bizigune Programako biztanle maizterren arabera

bertikalaren %	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
Oso ona	28,2	24,4	27,1
Nahiko ona	52,8	55,1	53,4
Nahiko txarra	13,4	14,2	13,6
Oso txarra	1,5	1,5	1,5
Ed/Ee	4,1	4,8	4,3
Batez besteko puntuazioa (0-100 indizea)	70,8	69,2	70,4

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.


3.17. grafikoa Bizigune Programako biztanle maizterrek esleitutako etxebizitzaren kalitatea/prezioa inguruan egindako batez besteko balorazioa antzintatasunaren eta lurralde historikoaren arabera




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

0-100 eskala batean, 70 puntukoa da kalitatea/prezioa aldagaiak lortu duen batez besteko balorazioa, eta batez besteko horrek gora egin du, gainera, azken bi urteetan.

3.18. grafikoa Esleitutako etxebizitzaren kalitatea/prezioaren batez besteko balorazioaren bilakaera Bizigune Programako biztanle maizterren arabera, 2010-2012




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.



Aurreko inkestetan ikusi ahal izan den moduan, Bizigune Programaren bitartez etxebizitza bat alokatu ahal izateak oso balorazio positiboa lortu du etxebizitzaren beharrari erantzuteko bide bezala. Hain zuzen, biztanle maizterren ustez, aukera hobea da hori, merkatu librean alokatzea baino edo etxebizitza babestu bat erostea baino.

3.19. grafikoa Bizigune Programaren eta beharrei erantzuteko bestelako bitartekoen arteko batez besteko konparazioa Bizigune Programako familia maizterren ikuspegitik




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

3.16. taula Bizigune Programaren eta beharrei erantzuteko bestelako bitartekoen arteko batez besteko konparazioa Bizigune Programako familia maizterren ikuspegitik, antzinatasunaren eta lurralde historikoaren arabera.

Batez besteko indizea	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTI RA
Babes ofizialeko etxebizitza bat erostea	77,1	86,1	79,2	79,7	79,8	79,6
Etxebizitza libre bat erostea	86,0	87,7	86,0	86,1	87,8	86,5
Babes ofizialeko etxebizitza bat alokatzea	62,7	73,1	62,6	65,3	69,4	65,9
Higiezin-agentzia baten bitartez etxebizitza bat alokatzea	88,6	89,7	88,1	89,4	88,3	88,9
Etxebizitza bat jabeari zuzenean alokatzea	85,8	88,2	87,4	85,8	87,6	86,5

0-100 indizea: Bizigune askoz ere okerrago - Bizigune askoz ere hobeto

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.




3.3.3. Etxebizitzaren ezaugarri jakin batzuekiko asetasuna


Atal honetan, asetasun-mailaren azterketa egin da eta azterketa horretan kontuan hartu dira Bizigune Programaren bitartez esleitutako etxebizitzarekin erlazionatutako askotariko itemak. Alokairuarekiko asetasunaz eta etxebizitzagatik ordaindutako errentarekiko asetasunaz gain, ondorengo lerroetan biztanleria maizterrak hainbat alderdiri buruz eman duen iritzia ikus daiteke. Alderdi horien artean honakoak daude: etxebizitzaren kalitatea eta ekipamendua, etxebizitzaren tamaina eta banaketa, eraikina eta eraikina edo etxebizitza kokatzen den ingurua.

Grafikoan ikus daitekeen moduan, kalitatearekiko eta ekipamenduarikiko batez besteko asetasuna (56 puntu) gainerako itemetan lortutakoa baino baxuagoa da. Aitzitik, inguruak balorazio oso positiboa jaso du (74 puntu batez beste). Tamianarekiko eta banaketarekiko batez besteko asetasun-maila 71 puntukoa da eta 62 puntukoa da eraikinarekiko batez besteko asetasuna

3.20. grafikoa Bizigune Programako familia maizterrek etxebizitzaren hainbat ezaugarriekiko agertutako batez besteko asetasuna




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.



2012an maizterrek hainbat alderdiren inguruan agertutako batez besteko assetasuna aurreko edizioetan adierazitakoaren antzekoa da.

3.21. grafikoa Bizigune Programako familia maizterrek etxebizitzaren hainbat ezaugarriekiko agertutako batez besteko assetasuna, 2010-2012




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.


a) Kalitatearekiko eta ekipamenduarekiko assetasuna

Lehen esandakoa gogora ekarriz, etxebizitzaren kalitateak eta ekipamenduak lortu duten batez besteko assetasun-maila gainerako alderdiek lortutakoaren azpitik dago. Hala ere, alde nabarmenak ikus daitezke aztertutako itemen artean.

Biziguneko etxebizitzaren maizterren kasuan, 63 puntura iritsi da sukaldearen eta komunaren ekipamenduarekiko assetasuna eta 60 puntura iritsi da materialen kalitatearekiko assetasuna. Berokuntza eta gasa gisako instalazioek (59 puntu) eta etxebizitzaren antzinatasunak (58 puntu) antzeko batez besteko assetasuna lortu dute. Eta okerren baloratu diren itemak dira etxebizitzaren isolamendua (52,5 puntu) eta altzariak (43 puntu).



3.22. grafikoa Bizigune Programako familia maizterren etxebizitzaren kalitatearekiko eta ekipamenduarekiko batez besteko asetasuna



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Kalitateari eta ekipamenduari buruz Arabako eta Gipuzkoako biztanle maizterren artean jasotako iritziak Bizkaikoak baino positiboak dira.

3.17. taula Bizigune programako etxebizitzaren kalitatearekiko eta ekipamenduarekiko batez besteko asetasuna antzinasunaren eta lurralde historikoaren arabera

Batez besteko puntuazioa (0-100 indizea)	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Etxebizitzaren antzinasuna	58,4	55,5	58,3	56,9	58,8	57,6
Materialen kalitatea	60,7	58,7	63,1	57,8	64,3	60,1
Instalazioak (berokuntza, gasa)	58,8	59,1	59,3	57,7	61,6	58,9
Etxebizitzaren ekipamendua (sukaldea eta komuna)	62,9	64,4	67,1	61,2	66,2	63,3
Altzariak	44,0	41,0	43,9	41,1	48,8	43,1
Etxebizitzaren isolamendua	52,7	51,9	57,3	48,3	60,0	52,5
Batez besteko asetasuna	56,2	55,1	58,2	53,8	59,9	55,9


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

b) Tamainarekiko eta banaketarekiko asetasuna

Etxebizitzaren tamainarekiko batez besteko asetasuna (72 puntu) eta etxebizitzaren diseinuarekiko eta banaketarekiko batez besteko asetasuna (71 puntu) oso altua da, baita logela kopuruarekiko ere (70 puntu).

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.


Etxebideren eta Eusko Jaurlaritzaren lanak balorazio onak lortu badituzte ere, Biziguneko biztanle maizterren gehiengoak uste du Euskadiko etxebizitza-politikak lantzeko orduan ez dela kontuan hartzen herritarren iritzia.

3.38. taula Herritarren iritzia kontuan hartzen da Euskadiko etxebizitza-politika lantzeko orduan, Bizigune Programaren biztanle maizterren ustez

	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
Erabat ados	3,4	2,5	3,1
Nahiko ados	18,2	17,4	17,9
Desadostasuna	27,6	21,3	25,8
Desadostasun handia	20,5	29,4	23,1
Ed/Ee	30,3	29,4	30,1
Batez besteko balorazioa. Indizea: 0-100	35,5	30,0	33,9

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.


3.65. grafikoa Batez besteko adostasuna Euskadiko etxebizitza-politika lantzeko orduan herritarren iritzia kontuan hartzen ote den galdetzean, antzintasunaren eta lurralde historikoaren arabera



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Hobetzeko aukerei buruz galdetzean, Biziguneko biztanle maizterren ustez Eusko Jaurlaritzak gehiago sustatu behar ditu merkatu librean arrazoizko alokairuak eskaintzeko neurriak (% 47), etxebizitza hutsak zigortzekoak (% 28), etxebizitzaren finantzaketarako laguntzak areagotzekoak (% 25) eta BOE baremazio bidez esleitzekoak (% 24), behar handien duten taldeei laguntzeko.

3.66. grafikoa Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren egoera hobetzeko lehenetsi beharreko alderdiak




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

3.39. taula Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren egoera hobetzeko lehenetsi beharreko alderdiak Bizigune Programako biztanle maizterren aldetik

baiezkoen %	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
Merkatu librean arrazoizko alokairuak sustatzea	45,6	50,2	46,9
BOEen ikuskaritzen maiztasuna areagotzea	13,9	11,4	13,2
Etxebizitza hutsak zigortzea	27,8	27,2	27,6
BOEen eraikuntza areagotzea	16,8	11,1	15,1
BOEak baremazio bidez esleitzea, behar handien duten taldeei laguntzeko	23,8	24,0	23,9
Birgaitze-politika bat eta auzoak berritzeko politika bat zuzentzea	1,1	2,8	1,6
Hipoteka-kaleratzeak gutxitzeko bitartekaritza-lanak egitea	13,4	12,7	13,2
Etxebizitza finantzatzeko laguntzak ugaritzea	23,3	29,5	25,1
Hainbat	28,3	18,6	25,4

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.



Eta amaitzeko, Biziguneko familien artean egindako 2012ko Inkestak baieztatu egiten du Udalek etxebizitzaren alorrean egiten duten lanaren balorazioak zerbait hobera egin duela. 58 puntukoa da batez besteko puntuazioa.


3.40. taula Udalek etxebizitza eskuratzea errazago izateko egiten duten lanari buruzko balorazioa Bizigune Programako familia maizterren aldetik

bertikalaren %	Kontratu zaharrak	Kontratu berriak	GUZTIRA
Oso ondo ari da lanean	3,8	2,8	3,5
Nahiko ondo ari da lanean	28,9	26,0	28,1
Erdipurdi ari da lanean	14,5	18,8	15,7
Nahiko gaizki ari da lanean	6,6	5,4	6,2
Oso gaizki ari da lanean	5,0	4,1	4,7
Ez dut iritzirik	41,2	42,8	41,7
Batez besteko puntuazioa (0-100 indizea)	58,5	57,9	58,3

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.


Bilakaerari erreparatu, Udalek egiten duten lanaren balorazioa hobetu egin dela ikus daiteke.

3.67. grafikoa Udalen batez besteko balorazio orokorraren bilakaera Bizigune Programako familia maizterren aldetik, 2010-2012




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2010-2012.

3.68. grafikoa Udalek etxebizitza eskuratzea errazago izateko egiten duten lanari buruzko balorazioa Bizigune Programako familia maizterren aldetik antzinasunaren eta lurralde historikoaren arabera



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.



3.6. ADIERAZLEEN ANALISIA GENEROAREN IKUSPEGITIK

3.6.1. Inkestan parte hartu duten pertsonen karakterizazioa


Atal honetan ikus daitezke Biziguneko biztanle maizterrei egindako Inkestako emaitzak sexuaren arabera bereizita.

2012an inkestan parte hartu duten biztanleen % 55 emakumezkoak dira eta gizonezkoa dira % 45.

Inkestan parte hartu duten Biziguneko maizterren ezaugarri soziodemografikoei helduta, ezaugarri bereizle hauek azpimarratu behar dira:

- Proporzio altuagoa erregistratu dute emakumezkoek 35-44 urteko taldean eta gehiago dira gizonezkoak 45-64 adin-tartean.
- Kide bakarreko familiek agerpen handiagoa dute gizonezkoen artean (% 60), emakumezkoen artean baino (% 44).
- Langabezian dauden pertsonen proportzioa altuagoa da gizonezkoen artean eta inkestan parte hartu duten gizonezkoen % 45,5 langabezian daude.
- Antzekoa da batez besteko diru-sarrerren maila: 891 euro emakumezkoen kasuan eta 890 euro gizonezkoen kasuan.

3.69. grafikoa Inkestan parte hartu duten etxebizitzaren esleipendunak pertsona sexuaren arabera, 2012



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

3.41. taula Biziguneko biztanle esleipendunen karakterizazioa sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Adina		
30 urte baino gutxiago	5,4	5,4
30-34 urte	15,0	15,9
35-44 urte	42,4	37,3
45-64 urte	31,4	37,6
65 urte eta gehiago	5,8	3,8
Batez besteko adina (urteak)	43,5	43,6
Familia-unitatearen tamaina		
Pertsona bakarra	43,7	59,7
Bi pertsona	28,7	10,6
Hiru pertsona	14,9	8,3
Lau pertsona	7,7	10,9
Bost pertsona edo gehiago	5,0	10,4
Batez besteko tamaina	2,03	2,10
Lan-egoera		
Lanean/bere kontura	2,7	6,4
Lanean/kontratu finkoa	21,2	18,6
Lanean/aldi baterako kontratua	20,3	16,2
Langabezian	38,7	45,5
Erretiratua edo pentsioduna	13,1	12,8
Beste egoera bat	3,9	0,5
Diru-sarrerren mailaren banaketa		
630 euro bitartean	23,4	21,6
631-1.290 euro	57,2	64,9
1.290 euro baino gehiago	11,4	9,7
Ed/Ee	8,1	3,8
Batez besteko diru-sarrerak	890,9	890,0
Diru-sarrera bakar bat duten familien %	85,6	88,8

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

- Familia gehienek diru-sarrera bakar bat dute: 86% emakumezkoen kasuan eta 89% gizonezkoen kasuan.

3.6.2. Etxebizitza-beharrak

Biziguneko gizonezko eta emakumezko maizterrei estalitako etxebizitza beharrari buruz galdetzean eta etorkizunera begira edukiko duten etxebizitza-beharrari buruz galdetzean eman dituzten erantzun adierazgarrienak zehaztu dira ondorengo lerroetan.


- Emakumezko eta gizonezko gehienek esan dute Bizigune ez dela izan familiaren lehen etxebizitza eta, beraz, alokairu libre batetik Biziguneren alokairu babestu batera pasatzeko aukera eduki dutela Biziguneri esker.
- Ohiko etxebizitza aldatzeko beharra adierazi dute Inkestan parte hartu duten emakumezkoen % 25ek eta gizonezkoen % 24k.

3.42. taula Biziguneko biztanle esleipendunen etxebizitza-beharrak sexuaren arabera

	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Erantzundako behar mota		
Lehen etxebizitza eskuratzea	17,0	20,0
Ohiko etxebizitza aldatzea	83,0	80,0
Ohiko etxebizitza aldatzeko gaur egungo beharra		
Bai, aldatzeko beharra du	25,0	23,7
Ez, ez du aldatzeko beharrik	69,5	74,2
Beste egoera bat	0,6	0,0
Ed/Ee	5,0	2,1
Merkatu librean etxebizitza eskuratzeko aukera Batez besteko indizea (0-100)		
Merkatu librean alokatzeko aukera	9,8	11,7
Merkatu librean erosteko aukera	2,1	2,6
Etxebizitza birgaitzeko gaur egungo beharrak		
Bai	29,4	40,0
Ez	70,6	60,0
5 urteren buruan Bizigune Programan jarraitzeko aukerak		
Alokairuan jarraituko dut Bizigune Programarekin	66,5	58,2
Etxebizitza bat alokatuko dut merkatu librean	1,5	1,5
Alokairuko etxebizitza babestu bat eskuratuko dut	4,2	4,1
Etxebizitza babestu bat eskuratuko dut erosketa-erregimenean	1,4	3,0
Etxebizitza bat erosiko dut merkatu librean	0,9	1,2
Ed/Ee	25,6	32,0

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

- Dena den, merkatu libreko etxebizitza batera aldatzeko aukera oso gutxi ikusten dute bi kasuetan, nahiz eta are gutxiago Biziguneko emakumezko maizterren artean, bai alokairuaren kasuan (12 puntu gizonezkoen artean eta 10 emakumezkoen artean) bai erosketaren kasuan (2,6 eta 2,1 puntu, hurrenez hurren).
- Biziguneko etxebizitza birgaitzeko beharrari dagokionez, gizonezko gehiagok erantzun dute beharra dutela (% 40k adierazi dute etxebizitza birgaitzeko beharra), eta gutxiago izan dira emakumezkoen artean (% 29).
- 5 urteren buruan Bizigune Programan jarraitzeko aukerei buruz galdetzean, gehiago dira baietz erantzun duten emakumezko maizterrak (% 66,5ek baietz esan dute), gizonezkoak baino (% 58).



3.6.3. Esleitutako etxebizitzarekiko asetasuna

Bizigune Programako etxebizitzarekiko asetasun-maila oso positiboa da, hala gizonezkoen artean nola emakumezkoen artean. Horrela, bi kasuetan 73 puntukoa da asetasun-maila (0-100 eskala batean).

3.43. taula Bizigune Programako egungo etxebizitzarekiko asetasun orokorra sexuaren arabera

	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Oso pozik	35,6	36,4
Nahiko pozik	50,0	46,5
Ez oso pozik	11,7	13,2
Poztasunik bat ere ez	1,9	2,2
Ed/Ee	0,9	1,6
Batez besteko balorazioa. Indizea: 0-100	73,4	73,0

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Asetasun-maila altua lortu da etxebizitza alokairuan esleitzeari buruz galdetzean. Batez bestekoa zerbait altuagoa izan da emakumezkoen artean (78 puntu), gizonezkoen artean baino (72 puntu).

3.44. taula Bizigune Programako esleipendunen asetasuna etxebizitza alokairuan esleitzearekin sexuaren arabera

	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Oso pozik	39,6	25,9
Nahiko pozik	55,7	62,5
Ez oso pozik	2,8	6,7
Poztasunik bat ere ez	1,4	1,6
Ed/Ee	0,6	3,3
Batez besteko balorazioa. Indizea: 0-100	78,1	72,1

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Biziguneko etxebizitzaren kalitatea/prezioa erlazioa ere antzera baloratu da emakumezkoen eta gizonezkoen artean: 70 puntuko batez bestekoa lortu da emakumezkoen artean eta 71 puntukoa, berriz, gizonezkoen artean.

3.45. taula Bizigune Programako etxebizitzaren kalitatea/prezioa erlazioa sexuaren arabera


	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Oso ona	27,9	26,2
Nahiko ona	51,6	55,7
Nahiko txarra	15,0	12,0
Oso txarra	1,6	1,3
Ed/Ee	3,9	4,9
Batez besteko balorazioa. Indizea: 0-100	70,0	70,7

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.


Biziguneko etxebizitzarekin lotuta aztertu diren alderdi desberdinen balorazioa oso antzekoa izan da emakumezko eta gizonezko maizterren artean, nahiz eta balorazio altuenak Inkestan parte hartu duten gizonezkoen artean lortu diren.

- Etxebizitzak kokatzen diren ingurunea da hobekien baloratu den alderdia: 77 puntuko batez besteko aletasuna lortu da emakumezkoen artean eta 74,5 puntukoa gizonezkoen artean.
- Ondoren daude etxebizitzaren tamaina eta banaketa: 73 puntuko batez besteko aletasuna lortu da gizonezkoen artean eta 70 puntukoa, berriz, emakumezkoen artean.
- Ordaindutako alokairu-errentarekiko batez besteko aletasun-maila 67 puntura iritsi da gizonezkoen artean eta 64 puntura emakumezkoen artean.
- Eraikinarekiko aletasuna 64 puntukoa da gizonezkoen artean eta 60 puntukoa emakumezkoen artean.
- Etxebizitzaren kalitatearekiko eta ekipamenduarekiko batez besteko aletasunaren kasuan lortu da baliorik baxuena: 55 puntu batez beste bi kasuetan.

3.70. grafikoa Bizigune Programako etxebizitzaren hainbat ezaugarriekiko batez besteko aletasuna sexuaren arabera



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Salla, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.



3.6.4. Esleipen-prozesuaren eta Programaren balorazioa

Inkestaren arabera baieztatu daitekeenez, hala emakumezkoek nola gizonezkoek asetasun-maila altua adierazi dute Bizigune Programarekin: 72 puntukoa da batez bestekoa emakumezkoen artean eta 71 puntukoa gizonezkoen artean.

3.46. taula Bizigune Programarekiko asetasun-maila orokorra sexuaren arabera

	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Oso altua	18,0	17,3
Altua	56,7	59,4
Ertaina	19,8	13,4
Baxua	5,2	8,6
Oso baxua	0,2	1,3
Batez besteko balorazioa. Indizea: 0-100	71,7	70,7


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Emakumezko eta gizonezko maizterren gehiengoak uste du Bizigune Programari esker eskuratu ahal izan dutela etxebizitza duin bat. Kasu honetan, 83,5 puntuko batez besteko adostasuna lortu da emakumezkoen artean eta 85 puntukoa, berriz, gizonezkoen artean. Oso altua da, halaber, Biziguneri esker arrazoizko errenta bat duen etxebizitza bat eskuratu ahal izan duten pertsonen egindako balorazioa, bai emakumezkoen artean (82 puntu) bai gizonezkoen artean (77 puntu). Eta bi kasuetan azpimarratu dute Bizigunek gizarteari laguntzen diola gizarte-alkairuak eskainiz eta etxebizitza hutsak merkataturaz (79 puntu emakumezkoen artean eta 82 puntu gizonezkoen artean batez beste).

3.47. taula Programaren helburu nagusien balorazioa


Batez besteko adostasuna	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Bizigune Programari esker etxebizitza duin bat eskuratu ahal izan dut	83,5	85,0
Bizigune Programari esker etxebizitza bat eskuratu ahal izan dut arrazoizko errenta baten truke	81,6	77,4
Bizigunek gizarteari laguntzen dio alokairu sozialak sustatuz eta <u>etxebizitza hutsak alokairuko merkatuan eskainiz</u>	79,4	81,6

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.



Inkestak erakusten duen moduan, antzeko iritziak jaso dira emakumezkoen eta gizonezkoen artean, hainbat alderdi baloratzeko orduan, hala nola: esleipen-prozesua, esleipen-prozesuaren gardentasuna, kontratuaren aurreko zerbitzua eta kontratuaren ondorengo zerbitzua. Grafikoan ikus daiteke item bakoitzak lortutako batez besteko asetasmaila.

3.71. grafikoa Bizigune Programak ezaugarri desberdinei ematen dien arretarekiko batez besteko asetasmuna



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.


3.48. taula Programaren hainbat alderdiren balorazioa sexuaren arabera

Batez besteko balorazioa. Indizea: 0-100	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Esleipen-prozesua		
Esleipen-prozesuaren balorazio orokorra	71,3	70,4
Esleipen-prozesuaren gardentasuna eta argitasuna	66,6	66,0
Kontratuaren aurreko zerbitzua	71,4	70,4
Bulegoen hurbiltasuna	61,6	59,1
Etxebizitzaren emate-epea	72,7	70,7
Bulegoetan jasotako tratua eta adeitasuna	77,0	76,1
Informazio argia eta nahikoa kontratua sinatu aurretik	72,3	71,7
Aurkeztutako dokumentazioa argia eta nahikoa	74,5	72,4
Alokatutako etxebizitza eta jasotako zerbitzua bat datoz alde aurretik jasotako informazioarekin	71,6	71,0
Alokairu-kontratua sinatu aurretik etxebizitzara bisita	75,9	73,6
Kontratuaren ondoko zerbitzua	69,4	69,3
Etxebizitzan gertaera negatiboak egotea (baiezkoen %)	57,4	59,8
Komunikazio-maila	66,8	61,0
Kontaktua Bizigunerekin (baiezkoen %)	75,8	73,7
Gorabeheren arretarako zerbitzuarekin harremanetan jartzeko bitartekoak	58,7	52,5
Telefono bidezko arreta-zerbitzua	62,6	57,5
Deia erantzun zuten pertsonen tratua eta adeitasuna	64,7	61,8
Gorabehera konpontzeko eraginkortasuna	42,7	35,5
Gorabehera konpontzeko azkartasuna	35,3	29,9
Biziguneren web-aren balorazioa		
Web-aren ezagupena (baiezkoen %)	33,8	26,5
Informazioaren kalitatea	60,4	62,5
Informazio-kantitatea	58,7	60,1
Informazio eguneratua	57,9	59,2
Orriaren irudia/estetika	62,6	62,9
Nabigatzeko erraztasuna	61,1	65,2
Web-aren balorazio orokorra	66,8	67,4

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Eta, amaitzeko, hobetu beharreko alderdi garrantzitsuena arazoek konponbidea dela azpimarratu behar da. Emakumezkoen % 50ek aipatu dute eta gizonezkoen artean % 42k. Garrantziaren arabera daude ondoren, errenta-maila eta kontratuaren iraupena.

3.72. grafikoa Bizigune Programan hobetu beharreko alderdien rankinga sexuaren arabera




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

3.6.5. Etxebizitza-politikaren balorazioa

Bizigune Programako emakumezkoak eta gizonezkoak etxebizitza babestu gehienak alokairuan eskaintzeko eraikitzearen alde daude. Horrela, 84 puntuko batez bestekoa lortu da emakumezkoen artean eta 82 puntukoa gizonezkoen artean.

Inkestan parte hartu duten emakumezkoek gizonezkoek baino garrantzi handiagoa eman diete etxebizitza babestuen eskaintza probintzien artean modu orekatsuan banatzeko neurriei, baita diru-sarrerara altueneko eskatzaileek prezio altuagoak ordaintzeko neurriei ere. Baina, batez besteko garrantzi handiagoa eman diete beste udalerrri batzuetako esleipen-prozesuetan parte hartzeko aukerari edo etxebizitza babestuen lurzorua azalera-eskubidean erosteko aukerari.



3.49. taula Etxebizitza-politikaren ekintza garrantzitsuen balorazioa sexuaren arabera

Batez besteko puntuazioa (0-100 indizea)	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Etxebizitza babestu gehiena alokairuan eraikitzeko neurriarekiko batez besteko adostasuna	84,2	82,0
Azalera-eskubideko etxebizitza babestuen lurzoria erosteko aukerak ahalbidetzeko neurriaren batez besteko garrantzia	43,0	51,4
Etxebizitza babestuak probintzien artean orekatzeko eta eskaria nahikoa duten udalerrietan etxebizitza babestuaren sustapenari lehentasuna emateko neurriaren batez besteko garrantzia	64,8	62,7
Erroldatuta egon gabe beste udalerrri batzuetan egiten diren etxebizitza babestuen zozketetan parte hartzeko aukera ahalbidetzeko neurriaren batez besteko garrantzia	51,4	57,5
Diru-sarrera altueneko eskatzaileentzat etxebizitza babestuaren prezioa altuagoa izateko neurriaren batez besteko garrantzia	76,8	73,3
Etxebizitza hutsak merkaturatu eta merkaturako prezioak baino merkeagotan eskaintzeko neurriaren batez besteko garrantzia	87,7	87,7

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Antzekoa da adostasun-maila inkestan parte hartu duten emakumezkoen eta gizonezkoen artean etxebizitza babestuen parkearen kudeaketarekin erlazionatutako neurriei dagokienez, hala nola ikuskapenak egitea, okerreko erabilera eginez gero desjabetzeko aukera edo merkatu libreko etxebizitza bat erosten bada etxebizitza babestua uzteko betebeharra.

3.50. taula Esleitutako etxebizitzaren kudeaketarekin erlazionatutako neurriaren balorazioa sexuaren arabera

Batez besteko puntuazioa (0-100 indizea)	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Ikuskaritzak egiteko neurriarekiko batez besteko adostasuna	88,4	88,7
Etxebizitza babestuen okerreko erabilera egiten bada desjabetzeko neurriarekiko batez besteko adostasuna	81,3	82,1
Etxebizitza babestu baten jabe diren familiei, merkatu librean beste etxebizitza bat erosten badute etxebizitza uzteko eskatzeko neurriarekiko batez besteko adostasuna	82,5	82,1


Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Biziguneko maizterren artetik emakumezkoen % 11k eta gizonezkoen % 10ek bakarrik ezagutzen dute etorkizuneko Etxebizitzaren Legea, eta bi kasuetan adostasun-maila zabala lortu da etxebizitzaren Eskubide Subjektiboari buruz galdetean. 85 emakumezkoen kasuan eta 83 gizonezkoen kasuan.

3.51. taula Etorkizuneko Etxebizitza Legearen ezagupena eta balorazioa sexuaren arabera

Batez besteko puntuazioa (0-100 indizea)	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Etorkizuneko Etxebizitza Legearen ezagupena (baiezkoen %: Ezagutzen du edo berari buruz hitz egiten entzun du)	10,8	9,8
Etxebizitzaren eskubide subjektiboarekiko batez besteko adostasuna	85,4	82,7

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.




Etxebideren zerbitzuarekiko asetasun orokorra 71 puntukoa da Biziguneko gizonezkoen artean, eta 68 puntukoa da, berriz, emakumezkoen artean. Halaber, hobeto baloratu dute gizonezkoek (68 puntu) Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren alorrean egiten duen lana, emakumezkoekin alderatuta (64 puntu).

Biziguneko maizterren ustez, merkatu librean arrazoizko alokairuak eskaintzeko neurriak sustatu behar dira: gizonezkoen % 50 alde agertu dira eta % 44 dira emakumezkoen artean.

3.52. taula Eusko Jaurlaritzak eta Udalek etxebizitzaren alorrean egiten duten lanaren balorazio orokorra eta etxebizitzaren egoera hobetzeko heldu beharreko alderdiak sexuaren arabera

Batez besteko puntuazioa (0-100 indizea)	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Etxebide Zerbitzuaren batez besteko balorazioa	67,8	70,6
Eusko Jaurlaritzaren jardueraren batez besteko balorazioa	64,4	67,7
Iritzia kontuan hartzen dela uste dutenen batez besteko adostasuna	34,3	33,4
Udalen jardueraren batez besteko balorazioa	59,7	56,7
Heldu beharreko alderdiak (baiezkoen %)	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Merkatu librean arrazoizko alokairuak sustatzea	44,2	50,2
BOEen ikuskaritzen maiztasuna areagotzea	14,2	11,9
Etxebizitza hutsak zigortzea	29,0	26,0
BOEen eraikuntza areagotzea	18,3	11,3
BOEak baremazio bidez esleitzea, behar handien duten taldeei laguntzeko	23,4	24,5
Birgaitze-politika bat eta auzoak berritzeko politika bat zuzentzea	1,9	1,2
Hipoteka-kaleratzeak gutxitzeko bitartekaritza-lanak egitea	15,9	9,9
Etxebizitza finantzatzeko laguntzak ugaritzea	24,6	25,7
Besteak.	22,9	28,6

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.



4. BIZIGUNE PROGRAMAREN EBALUAZIOA PERTSONA ESLEIPENDUNEN IKUSPEGITIK

Amaitzeko, azken atal honetan Bizigune Programaren ebaluazio orokorra egin da. Ebaluazioa egiteko oinarrian hartu da dokumentuan deskribatutako informazioa, eta irizpideak izan dira helburuekiko koherentzia, emaitzen eraginkortasuna, maizterren asetasuna eta Programak eragindako ekitatea eta inpaktua.


a) Koherentzia

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak Bizigune Programa baliatzen du 2010-2013 Etxebizitza eta Hiri Eraberritzea Bideratzeko Planaren helburu estrategikoak betetzeko, hain zuzen ere: etxebizitza eskuratzeko aukerak erraztu nahi dira, eta horretarako, lehenetasuna eman nahi zaio alokairuari, eta zehazkiago, Bizigune Programaren bitartez etxebizitza hutsak merkaturatzen dira, eta modu horretara, partikularren etxebizitzen alokairua sustatzen da.


Maizterren ikuspegitik, adostasun zabala lortu da kontuan hartzen bada Bizigune Programa lagungarria dela etxebizitza duin bat lortzeko, eta berari esker etxebizitza babestuen eskatzaileek arrazoizko errentako etxebizitza bat eskura dezaketela. Bizigunek gizarteari laguntzen dio alokairu sozialak sustatuz eta etxebizitza hutsak alokairuko merkatuan eskainiz

Halaber, eta etxebizitza bat eskuratzeko aukerak sustatzeko helburuarekin, Biziguneko maizterrek garrantzi handia eman diete etxebizitzak hutsa merkatukoak baino errenta baxuagotan alokairuan eskaintzeko neurriei, eta behin eta berriro azpimarratu dute Eusko Jaurlaritzari dagokiola lan hori egitea.

4.1. grafikoa Bizigune Programaren helburuak lortzeko batez besteko adostasunaren bilakaera, 2012




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailsa, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.



b) Efiakazia.

Efikaziaren ikuspegitik, 2011 amaiera arte Bizigune Programak merkatu libreko 4.802 etxebizitza huts merkatuatu eta alokairu babestuan eskaintzea lortu du. Etxebizitza horien % 94k jada alokairu-kontratu dute (4.506 kontratu).

4.2. grafikoa Biziguneren etxebizitza-parkearen bilakaera, 2003-2011



*Urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Etxebizitza Bideratzeko Planak ezartzen dituen helburu kuantitatiboek dagokienez, 2011ko ekitaldirako 4.833 etxebizitza libre merkatuatu nahi ziren. Hortaz, 2011 amaieran Bizigune Programaren bitartez 4.802 etxebizitza antzeman direla kontuan hartuta, hasiera batean aurreikusitako helburuaren % 99 bete dela esan daiteke.

2011 amaieran Bizigunek 4.506 kontratu zituen indarrean eta Etxebiden mota horretako etxebizitzaren eskariaren % 12 estaltzen zuen. Bestalde, azpimarratzekoa da jabeen % 88k Bizigune Programarekin errepikatzea erabakitzen dutela, alokairu-kontratuaren lehen bost urteak igaro eta gero.

c) Lurralde-ekitatea

Bizigune Programak antzemandako etxebizitzaren guztizkotik % 56 Bizkaian daude (20.860 etxebizitza), % 30,5 Gipuzkoan (11.323 etxebizitza) eta % 13 Araban (4.953 etxebizitza).

Planak ezarritako helburuak kontuan hartuta eta Bizigune Programaren bitartez antzemandako etxebizitzaren azterketa geografikoari erreparatuz, lurralde-mailako desberdintasun handiak ikus daitezke. Araban aurreikusitako helburua bete den bitartean (% 100), Bizkaian gainditu egin da (% 120) eta Gipuzkoan antzemandako etxebizitzak Planak aurreikusitako helburuaren % 69ra bakarrik iristen dira.

4.1. taula 2010-2013 Etxebizitza eta Hiri Eraberritzea Bideratzeko Planaren baitan partikularren etxebizitzak alokairuan sustatzeko helburuen betetze-maila etxebizitza motaren arabera

Bizigune Programa lurralde historikoka	2011 helburua	Gauzatzea 2011	Betetze-maila (%)
Araba	793	791	99,7
Bizkaia	2.416	2.886	119,5
Gipuzkoa	1.624	1.125	69,3
Guztira	4.833	4.802	99,4

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

Desberdintasun handiak ikus daitezke, halaber, lurralde historikoka eskariari emandako erantzunari erreparatzen bazaio. Bizigunek Araban izan duen eskariaren % 15i kontratuen bitartez erantzun zaion bitartean, portzentaje hori % 13koa da Bizkaian, eta % 9ra murrizten da Gipuzkoan.


d) Eraginkortasuna

Eraginkortasunari dagokionez, 2011n Etxebizitza Sailak 23 milioi euro bideratu ditu Bizigune Programara, hau da, etxebizitza bakoitzak urtean 4.821 euroko batez besteko diru-laguntza jaso du.

Hileko alokairu-errentei dagokienez, 2011n etxebizitzaren jabeek batez beste 597,5 euroko errenta jaso dute eta maizterrek hileko 303 euroko errenta ordaindu dute.

Jabeek jasotzen duten errentaren eta maizterrek ordaintzen dutenaren arteko aldea, 295 euro batez beste, bere gain hartzen du Etxebizitza Sailak, diru-laguntza moduan. Urteko kopuruei dagokienez, diru-laguntza 3.535 eurokoa da alokatutako etxebizitza bakoitzagatik, eta kopuru horrek eragin du programaren etxebizitza bakoitzagatik guztizko kostuaren % 73.

4.3. grafikoa Bizigune Programaren bitartez alokatutako etxebizitzaren batez besteko errentaren bilakaera, 2003-2010




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

e) Asetasuna

Biziguneko etxebizitzaren maizterrei egindako inkestak erakusten duen moduan, oraingoan ere asetasun-maila altua lortu da etxebizitza esleituari buruz galdetzean. 73 puntuko batez bestekoa lortu da, eta badirudi batez bestekoa gero eta altuagoa dela.

Biziguneko maizterren artean asetasun-maila altua lortu du, halaber, etxebizitza alokairuan esleitu izanak, 75 puntuko batez bestekoarekin. Gainera, Biziguneko etxebizitza bat eskuratzea etxebizitza-beharrari erantzuteko aukerarik onena dela azpimarratu dute.


4.4. grafikoa Bizigune Programako familia maizterren egungo etxebizitzarekiko eta alokairuarekiko batez besteko asetasun orokorraren bilakaera, 2010-2012




Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta, 2010-2012.

Etxebizitzarekiko asetasun-maila zehazteko aztertu diren 5 faktoreen artetik, etxebizitza kokatzen den ingurua da hobekien baloratu dena, 74 puntuko batez besteko asetasunarekin. Etxebizitzaren tamaina eta banaketa daude bigarren lekuan, 71 puntuko batez besteko asetasunarekin. Jarraian aipatu da ordaindutako alokairu-errenta, 65 puntuko batez bestekoarekin. Ondoren dago eraikinarekiko asetasuna, 62 puntuko batez bestekoarekin. Asetasun-maila baxuena etxebizitzaren kalitateak eta ekipamenduak lortu dute (56 puntu).

Maizterrak ez daude asetuta etxebizitzaren iresgarritasunarekin eta oztopo arkitektonikoekin (41 puntu), ezta etxebizitzaren altzariekin ere (43 puntu).




4.5. grafikoa Bizigune Programako familia maizterrek etxebizitzaren hainbat ezaugarriekiko agertutako batez besteko assetasuna



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.

Familia maizterren artean adostasun-maila altuak lortu dira Bizigune Programari buruz galdetzean. Zehazkiago, 71 puntukoa da batez besteko assetasuna, aurretik lortutakoa baino zerbait gehiago.


4.6. grafikoa Bizigune Programarekiko batez besteko assetasunaren bilakaera, 2010-2011



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2010-2011.

Esleipenak, kontratu aurreko zerbitzuak eta kontratu ondorengoak assetasun-maila altuak lortu dituzte Biziguneko maizterren artean.

4.7. grafikoa Familia maizterren batez besteko assetasuna Bizigune Programako hainbat alderdirekin



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Bizigune Programako biztanle maizterren inkesta 2012.


Hala ere, familia maizterren % 59k adierazi dute Biziguneko etxebizitzarekin arazo edo gorabeheraren bat eduki dutela. Positiboki baloratu dira jasotako arreta eta telefono bidezko arreta-zerbitzua, baina balorazioa oso negatiboa izan da, oraingoan ere, etxebizitzan izandako arazoak konpontzeko azkartasunari eta eraginkortasunari dagokienez. Hain zuzen, maizterren % 46k uste dute alderdi hori hobetu behar dela.

Azpimarratzekoa da, halaber, Biziguneko maizterrek Etxebideri buruz duten iritzi positiboa (69 puntu), baita Eusko Jaurlaritzak etxebizitzak eskuratzen laguntzeko egiten duen lanari buruz dutena ere (66 puntu). Eta taldearen ia erdiak esan du Eusko Jaurlaritzak lan handiagoa egin behar duela merkatu librean arazoizko alokairuak sustatzeko.


f) Eragina

Bizigune Programaren bitartez merkaturatu diren etxebizitzak (4.802 etxebizitza) EAEko alokairuko etxebizitza nagusien % 7 dira. Eta 2011 amaieran indarrean dauden alokairu-kontratuei esker (4.506), Etxebiden erregistratutako eskariaren % 12 estali da. Estaldura-maila egonkor mantentzen da denboran. Hala ere, Etxebiden erregistratutako Biziguneko etxebizitza-eskaria gero eta handiagoa da. 2011 amaieran 37.136 unitatekoa da, hau da, espediente guztien % 44.

4.8. grafikoa Bizigune Programako etxebizitza-eskariaren bilakaera, 2005-2011



Iturria: Etxebide. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza. Etxebide, 2005-2011




Bizigune Programari esker, etxebizitzak alokatu ahal izan dira merkatu librekoak baino prezio merkeagoren truke. Horrela, eskainitako etxebizitzaren alokairu-errenta 896 eurokoa izan da batez beste, jabeek jasotako errenta 299 euro gutxiagokoa batez beste eta maizterrek merkatu librean baino 593 euro gutxiago ordaindu dituzte batez beste.

Inkestaren arabera, Bizigune Programako familia maizterrak 2 kideko familiak dira batez beste eta familien % 51 kide bakar batek osatutako familiak dira. Familiaren tamaina handitu egin da eta guraso bakarreko familien proportzioak gora egin du. Familiaburuak 43,5 urte ditu batez beste, eta gero eta gutxiago dira langabezian daudenak (% 42). Gehiengoak diru-sarrerara bakarra du eta gero eta diru gutxiago irabazten du hilean (890,5 euro hilean batez beste).

Familia horien gehiengo baten ustez, Biziguneri esker lortu dute merkatu libreko etxebizitza batetik gaur egungo etxebizitzara pasatzea, eta orain ordaintzen duten errenta aurrekoa baino % 42 baxuagoa da. Familia gutxi uste dute gaur egun bizi diren etxebizitza aldatzeko beharra dutela eta aukera gutxi dituzte merkatu librean etxebizitza bat alokatzeko edo erosteko. Hiru familien artetik batek uste du Biziguneko etxebizitza birgaitzeko beharra duela. Eta etorkizunera begira, gehiengo batek uste du 5 urteren buruan Biziguneko etxebizitzan bizitzen jarraituko duela.

Gutzikoa kontuan hartuta, inkestan parte hartu duten maizterren % 55 emakumezkoak ziren eta % 45 gizonezkoak. Inkestak antzeko profil soziodemografikoa islatzen du eta antzeko iritziak jaso dira Biziguneko gizonezkoen eta emakumezkoen artean: bi kasuetan iritzi oso positiboak eman dituzte etxebizitzari eta Bizigune Programari buruz galdetzean. Gizonezkoen eta emakumezkoen erdiak baino gehiagok adierazi dute etxebizitzan arazoren bat eduki dutela eta ez daude batere asetuta arazoak konpontzeko azkartasunarekin eta eraginkortasunarekin. Hain zuzen ere, azken alderdi hori azpimarratu dute hobetu beharrekoen artean.



4.2. taula Bizigune Programaren adierazleen laburpen-taula

	Programaren datuak 2011
<i>Etxebiden erregistratutako Biziguneko etxebizitza-eskaria</i>	37.136 eskari
<i>Antzemandako etxebizitza kopurua</i>	4.802 etxebizitza
<i>Alokairu-kontratuen kop.</i>	4.506 kontratu indarrean
<i>Jabeen batez besteko alokairu-errenta</i>	597,5 euro
<i>Maizterren batez besteko alokairu-errenta</i>	302,9 euro
<i>Biziguneko etxebizitzaren batez besteko tamaina</i>	72,4 m ²
<i>Programako etxebizitza-eskariaren estaldura</i>	12%
<i>Etxebizitza Sailak Bizigune Programari emandako diru-laguntza</i>	23,2 milioi euro
<i>Etxebizitza bakoitzeko batez besteko diru-laguntzak</i>	4.629,3 euro
<i>Alokairua ordaintzeko urteko batez besteko diru-laguntza</i>	3.535,1 euro
	2012 Inkesta
<i>Erantzundako behar mota: etxebizitza nagusia aldatzea</i>	81,6%
<i>Egungo etxebizitza aldatzeko beharra</i>	24,4%
<i>Etxebizitza birgaitzeko beharra:</i>	34,2%
<i>5 urteren buruan Programan jarraitzeko aukerak</i>	62,7%
<i>Esleitutako etxebizitzarekiko batez besteko asetasuna: 0-100 indizea</i>	73,2 puntu
<i>Alokairuko etxebizitza baten esleipenarekiko batez besteko asetasuna: 0-100 indizea</i>	75,4 puntu
<i>Programarekiko asetasun orokorra: 0-100 indizea</i>	71,3 puntu
<i>Esleipen-prozesuaren batez besteko balorazio orokorra: 0-100 indizea</i>	70,9 puntu
<i>Etxebiderekiko batez besteko asetasuna (0-100 indizea)</i>	69,0 puntu
<i>Eusko Jaurlaritzarekiko batez besteko asetasuna</i>	65,9 puntu
<i>Udalek etxebizitzaren esparruan egiten dituzten jardueretikiko batez besteko asetasuna</i>	58,3 puntu

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Eusko Jaurlaritza.



5. GOMENDIOAK.

Txostenean zehar aipatu dugun moduan, Bizigune Programako etxebizitzak EAEko alokairuko etxebizitzaren parkearen % 7 dira, eta horri esker, Etxebiden erregistratutako mota horretako etxebizitzaren eskariaren % 12 estali da. Gainera, maizterrek asetasun-maila oso altuak erakutsi dituzte esleitutako etxebizitzarekin eta Programarekin.

Ondorengo lerroetan hobetzeko hainbat gomendio egiten dira, maizterren artean egindako inkestan lortutako emaitzak kontuan hartuta:

- Sailak merkatu librean arrazoizko alokairuak sustatzeko egiten duen esfortzuari eustea, eta modu horretara, Etxebizitza Bideratzeko Planak ezarritako helburu kuantitatiboan betetze-maila altuari eustea.
- Eskaria handian duten eta Planaren helburuen betetze-maila baxuena duten esparru geografikoetan, Gipuzkoan, adibidez, etxebizitza hutsak antzemateko lana indartzea.
- Bizigune Programan parte hartzen duten jabeen artean etxebizitzaren kontratuak berritzeko maila onei eustea.
- Maizterrentzako arrazoizko alokairu-errentak mantentzea eta jabeentzako errenta baxuagoko etxebizitzak antzematen saiatzea, eta modu horretara, Etxebizitza Sailak bere gain hartzen duen diru-laguntza gutxitzea.
- Bizigune Programako etxebizitzaren birgaitzeari laguntzea, eta bereziki, iredgarritasunak eta oztopo arkitektonikoak eragindako arazoak konpontzea.
- Bizigune Programako biztanle maizterren artean esleitutako etxebizitzarekiko lortutako asetasun-maila altuei eustea.
- Bizigune Programaren bitartez alokatutako etxebizitzetan dauden altzarien egoera baloratzea, kontratua sinatu aurretik.
- Biziguneko etxebizitzaren esleipen-prozesuarekiko asetasun-maila altuei eustea.
- Esleitutako etxebizitzetako arazo kopurua gutxitzea eta Biziguneko etxebizitzarekin izandako arazoak konpontzeko eraginkortasuna eta azkartasuna hobetzea.
- Biziguneren web orriaren ezagupen-maila eta erabilera hobetzea.
- Etorkizuneko Etxebizitza Legearen ezagupen-maila hobetzea.
- Biztanle maizterrek Etxebidek, Eusko Jaurlaritzak eta Udalek etxebizitzaren alorrean egiten duten lanarekin duten asetasun-maila onari eustea.